

ACTUALITATEA ALBISTEAK

Hasiera > Albistek > Aktualitatea > Yrama Simarro entrenatzaileak brontzezko domina lortu zuen Espainiako Igeriketa Artistikoko Txapelketan



Yrama Simarro entrenatzaileak brontzezko domina lortu zuen Espainiako Igeriketa Artistikoko Txapelketan

GALDAKAO / 2023-07-26 /

TESTUA: Irati Alonso Garcia
ARGAZKIA: Uribarri Sinkro Kluba

Etxebarriko Uribarri Sinkro Klubak brontzezko domina lortu zuen Espainiako Txapelketan, haur kategorian. Zortzi kidek osatutako taldeak «emaitza historikoa» eskuratu zuen Zaragozan antolatutako lehiaketan, Yrama Simarro entrenatzaile galdakoztarraren zuzendaritzapean.

Uztailaren 6tik 9ra bitarte Igeriketa Artistikoko Bigarren Mailako alebin eta haur mailako Espainiako Txapelketa antolatu zen Zaragozan. Hitzorduaz 39 taldetako 400 kiroilar batuz ziren, haien artean Etxebarriko Uribarri Sinkro Klubeko kideak.

Itsasne Arraizek, Maia Carreflok, Irene Ibarretzek, Altana Leónek, Ainhize Marcok, Nerea Pardok, Uxue Saratxagak eta Ane Segurak brontzezko domina lortu zuten txapelketan, emaitza «historikoa» klubarentzat. Izan ere, klubak Espainiako txapelketa batean lortu duen lehen domina izan da hau.

Arrakasta hau galdakoztar baten eskutik lortu zuten: **Yrama Simarro** entrenatzaile galdakoztarrak. «Uribarri Sinkro Klubeko eta Igeriketa Artistikoko Euskal Selektzioaren entrenatzaile lanarekin batera unibertsitate ikasketak egiten dituen entrenatzaile gaztearen merituzko ahalegina izan da ere lorpena», azpimarratu dute klubetik.

«Zorionak! Data hau markatzen dugu Klubaren historiaren egutegian», adierazi dute sare sozialetatik.

Albiste honekin lotuta...



Galdakao Igeriketa Taldeak bost domina lortu ditu Espainiako Master Txapelketan
2023-07-10



Galdakao Igeriketa Taldeak 16 domina lortu zituen Udako Euskal Herriko Txapelketan
2023-07-13



Galdakao Igeriketa Taldeak 21 urrezko domina lortu ditu Bizkaiko Txapelketan
2023-02-06

Aurreko albistea

Ganguren Mendi Taldeak Pirinioetara irteera antolatuko du ...

Hurrengo albistea

Eitxo tigreaki aurre egiteko gomendioak kontuan hartzeko ...



KATEGORIA BEREKO ALBISTE GHIAGO



Gazteei eskualdeko enpresatan praktikak egiteko aukera eskainiko die Galdakaoko Udalak
2023-01-30 / GALDAKAO



Duatloi Txikitik 580€ eman zaizkio Pentsiodunak Martxan plataformari
2022-05-18 /



Jon Uriarte Athleticeko hautagaiak Galdakaon hasi du bere kanpainaren ibilbidea
2022-06-11 /



Sorpresa linguistikoa azken berripaper abertzalean! AGINKE!



Haurrei zuzendutako bizikleta ginkana antolatuko